


NERABEENTZAKO AISIALDI JARDUERETAN  
EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEN  
**AHOBIZI DINAMIKAK UDALEKUETARA  
EGOKITZEKO PROPOSAMENAK**

---

## AURKIBIDEA

---

<b>Ahobizi dinamikak udalekuetara egokitzeko proposamena .....</b>	<b>2</b>
Zer dira ahobizi dinamikak? Zer egin da udalekuetan?.....	3
Zer hartu kontuan jarduerak erabiltzerakoan.....	5
Ahobizi jarduera I: “Galtzagorriak”.....	7
Ahobizi jarduera II: “Hezitzailea naiz!” .....	11
Ahobizi jarduera III: “Koplari edo raperoak” .....	14
Ahobizi jarduera IV: “Itsua eta itsu-laguna” .....	18
Eranskinak.....	21
<b>Ebaluatzeko baliabideak .....</b>	<b>40</b>
Eguneroko jarraipen fitxa hezitzaileentzat .....	42
Udalekuen hasierako galdetegia .....	45
Amaierako galdetegia partaideentzat.....	48
Amaierako galdetegia hezitzaileentzat.....	50



**01.**

**ZER DIRA AHOBIZI  
DINAMIKAK? ZER EGIN  
DA UDALEKUETAN?**



# 01.

## ZER DIRA AHOBIZI DINAMIKAK? ZER EGIN DA UDALEKUETAN?

**Ahobiziak dira** talde baten barruan euskara mantentzeko prest dauden eta horretarako konpromisoa hartzen duten kideak. Hau da: euskarari eutsiko diotenak, besteek erdaraz egiten badute ere.

Mingainak Dantzan udalekuetan bi urtez probatu dira jarduera hauek eta baliagarriak direla ikusi da.

**Ahobizi dinamiketan**, ahobizi batzuek egon behar dute, baina horretaz gain gainerakoek horiek hartutako ardura errespetatuko dutela, eta are gehiago, laguntzeko ere prest egon daitezkeela adierazten dute. Hau da, kide batzuk ahobiziak badira eta besteek hori errespetatu eta babesten badute, errazagoa da talde horretan euskararen erabilera indartzea edo finkatzea.

Dinamika hauekin parte hartzaileek euskara mantentzeko ahalegin kontzientea egitea lortu nahi da, gutxienez jarduera bideratzen den tarte horretan.

Bestalde, dinamika hauek udalekuetara egokitzeko ahalegina egin behar da: aisialdiko jarduera bat da, ondo pasa behar dute, eta ahobizien planteamenduak izaera ludiko hori barnean izan behar du. Are gehiago, udalekuen egoera ezberdinetara ere egokitu daitezke, eta honako hau aurreikusi da: bereziki espazio irekietan eta egoera informaletan erabiltzea.

Horri begira, ondoko ezaugarri hauen arabera antolatu dira jarduerak:

- Tarte bat edo batzuk bilatu dira ahobizien erronka proposatzeko: egun osokoa izatea gehiegizkoa da intentsitatea mantentzeko.
- Tarte nahiko informaletarako proposamenak izan dira: nagusiki beraien kabuz egoten diren eta hezitzaileen eragina nahiko mugatua den egoeretarako prestatu dira.
- Guztiei proposatuko zaie ahobizi izatea, baina ez da inor derrigortuko. Hori bai, besteen jarrera errespetatzea eta laguntzeko jarrera izatea eskatuko zaie.
- Ahobiziek euskara mantendu behar dutela modu esplizituan azalduko da, baina pertsonaia baten ezaugarrien barruan sartu da hori: pertsonaia horrek zeregin bat du eta ezaugarri batzuk ditu, eta horietako bat euskara mantentzea da. Hau da: rol jolas modukoak dira.

**02.**

**ZER HARTU KONTUAN  
JARDUERAK  
ERABILTZERAKOAN**



# 02.

## ZER HARTU KONTUAN JARDUERAK ERABILTZERAKOAN

### **Jarduera lagungarriak dira:**

Jarduera hauek nerabeen jardueretan euskararen erabilera indartzen edo mantentzen lagundu dezakete, baina, proposatu aurretik, komeni da zer eta nola aurkeztuko den ondo zehaztea:

- Euskaraz egiteko ohitura oso gutxi dutenen kasuan, tarte nahiko laburrak eta egoera nahiko babestuetan izan beharko du (hezitzaileon eragina nahiko handia izan daitekeenean).
- Euskaraz egiteko ohitura duten edo nahiko erraz egiten dutenen kasuan, tarte luzeagoak eta informagoak izan daitezke.

### **Hezitzaile Berritsuak izan:**

Hezitzaile Berritsuaren jarrera ezinbestekoa da: dinamikak aproposak izan daitezkeen arren ziurrenik zailtasunak ere agertuko dira, eta zailtasun horien aurrean nerabeei laguntzeko modu eraginkorrena Hezitzaile Berritsu moduan aritzea da. Hau da: hezitzaileok tarte horretan oso jarrera aktiboa izatea, eta elkarriketa asko sortzea edo bideratzea.

### **Parte hartzaileen eta jardueraren ezaugarrietara egokitu:**

Modu honetako jarduerak sortzea edo hemen proposatzen direnara egokitzea ez da zaila. Garrantzitsua da parte hartzaileen eta jardueraren ezaugarrietara ondo egokitzea da.

### **Programazioa txertatu:**

Jardueraren bat erabili nahi baduzue, programazioan ondo txertatzea garrantzitsua da:

- Noiz egingo da?
- Nola aurkeztuko zaie?
- Nola egingo da jarraipena eta balorazioa?

Garrantzitsua da programazioan ondo txertatzea nerabeei proposamena erakargarria egiteko eta euskararen erabilerara begira hezitzaileok hartu beharreko jokabidea argi edukitzeko.

### **Eranskinak:**

Balorazio, proba eta jarduerak aurrera ateratzeko materiala garatuta dago eranskinetan. Hauek adibideak baino ez dira eta guztiz moldagarriak izan daitezke.

**03.**

**AHOBIZI JARDUERA I:  
“GALTZAGORRIAK”**



# 03.

## AHOBIZI JARDUERA I: “GALTZAGORRIAK”

### Erronka:

- Mariren orrazia hiru zenbaki dituen kandado batekin itxitako kaxa batean dago.
- Hiru zenbaki horiek lortu behar dituzte.
- Eguneko hiru tarte aukeratu dira, eta tarte bakoitzean zenbaki bat lortzea izango dute helburu. Hiru tarteak hauek dira:
  - › Gosaldu ondoren hasi eta lehenengo ekintzak irauten duen bitartean.
  - › Bazkalosteko tartean.
  - › Arratsaldeko tarte batean.

### Azalpena:

- Bost ahobiziek tarte horietan modu jakin batean jokatu behar dute.
- Hezitzaileetako batek ere ahobizien moduan jokatu beharko du.
- Tarte bakoitzaren amaiera aldera, bostak bilduko dira hezitzaile horrekin, eta galdera batzuk egingo dizkie.
- Galderen ondoren hezitzaileak smakizun bat edo proba bat aurkeztuko die.
- Hori gainditzen dutenean, zenbakia lortuko dute.
- Gaubelan kutxa ireki eta Mariri eman beharreko orrazia lortuko dute.

### Hasiera:

- Leku nabarmen batean kutxa bat jarriko dugu kandadu batez lotuta. Hiru zenbakidun kandadu bat.
- Jaikitzen diren momentutik, ikusi egin behar dute. Oso bistan egon behar du.
- Kutxaren inguruan (baita aterpetxean zehar ere), kartelak edo girotzeko gauzak jar daitezke: pertsonaia mitologikoak, adibidez.



## Istoriaa:

### Hezitzaileek kontatuko dute:

Azkenik, jakin da Mariren urrezko orrazia non dagoen. Berrizen agertu da, baina kaxa baten barruan dago eta herritarrek ezin dute zabaldu. Herriko biztanleek ez dakite kaxarekin zer egin eta guri ekarri digute. Irekitzen badugu, Mariren orrazia lortu eta berari emateko aukera izango dugu. Lortuz gero, Marik bizitza guztirako zorientasuna oparituko digu.

- Kutxa irekitzeko hiru zenbakiak lortu behar dituzue.
- Zenbaki horiek lortzeko protagonistak zuetako bost izango dira. Zuetako bost izango zarete gaurko ahobiziak, "galtzagorriak".
- Probak ondo egitea komeni zaizue, Marik oso umore ona du baina haserretzen denean...
- Gure "galtzagorriek", hau egiten dute:
  - › Ateak atzera begira zeharkatu eta hitz egiten: Ba al dakizue Mariren kobazulotik kobazulora begira atera behar dela beti? Mariri errespetua agertzeko modua da eta zuek ere ohitura hau mantendu behar duzue. Nola? Ahobizi izango zareten tarte guztietan ateak horrela zeharkatuz, uzten duzuen gela edo guneari bizkarra eman gabe. Eta gainera zeharkatzen duzuen mementoan hitz egiten pasatu behar duzue. Hau da, edozein ate zeharkatzean, atzera begira eta zerbait esaten pasatu behar duzue, euskaraz, Mariri horixe gustatzen zaio eta.
  - › Ateak zeharkatzen ez zaudeten mementoetan ere euskaraz egin behar duzue, Marik alde guztietan dauzka belarri eta begiak eta jakin badaki orraziaren kaxa zuen eskutan dagoela. Marik hizkuntza asko jakin arren euskara du gustuko eta bere botere beldurgarrienak erabiltzeko gai da bere orrazia esku okerretan dabilela ikusten badu.
- Eguneko hiru tarteetan jokatu behar duzue horrela:
  - › Gosaldu ondoren hasi eta lehenengo jarduera amaitu arte.
  - › Bazkalostean.
  - › Arratsaldeko tartean.
- Tarte horien amaieran, (hezitzaileetako batek), elkartu egingo zaituztete bost ahobiziak eta galdera batzuk egingo dizkizue, baita proba bat gainditzeko eskatu ere. Orduan lortuko duzue zenbakia.
- Dena ondo badoa, iluntzerako Mariri orrazia emateko aukera izango duzue.

## Girozte lana:

- Ahobizi bezala bereizteko galtzagorrien ezaugarrien batekin jantziko dira (galtza, peto gorriak adibidez) eta haiek bezala jokatuko dute. Nolakoak dira galtzagorriak?
  - › Galtzagorriak batez ere langileak eta bihurri xamarak dira, zirikatzen aritzen dira batetik bestera.
- Hezitzaileok jarrera aktiboa izan behar dute eta galtzagorriak xaxatzen ibili. Ezaugarriak ondo betetzen al dituzte?

## Ahobizien aukeraketa, nortzuk izango dira gaurko galtzagorriak?

- Gosariko orduan dinamika azalduko da eta istorioa kontatuko da.
- Ahobizi izateko prest nortzuk dauden galdetuko da.
- Bost aukeratu dira (bolondresak bost baino gehiago badira ahobizi dinamika gehiago izango direla azaldu eta aukera izango dela esan).

## Zer eskatuko zaie besteei?

- Galtzagorriak animatu behar dituzte beraien rola ondo betetzera eta lagundu egin behar diete. Berdin jokatzeko badute, askoz hobe.

\* *Oharra: guztiek izan behar dute ahobizi izateko aukera, eta beraz, egunez egun ahobiziaz aldatu. Batzuk ez badira inoiz animatzen, egunean zehar beraiekin hitz egin eta hurrengo egunean animatu daitezkeen gonbidatu.*

## Egunean zehar balorazioak eta probak:

- Tarte bakoitzaren amaieran, hezitzaile bat bost ahobiziekkin bilduko da eta galdera batzuk egingo dizkie:
  - › Zer moduz aritu dira? Ateak atzera begira zeharkatu dituzte? Zeharkatzean hitz egiten al zuten? Denbora guztian euskaraz egin dute?
  - › Garrantzi berezia emango zaio azken puntu honi: argi azalduko zaie guretzat klabe nagusia hori dela.
- Ondoren, zenbakia lortzeko proba bat gainditu beharko dute: asmakizun bat erantzutea, matematiketako ariketa bat egitea, kirol proba bat edo dena delakoa. Zerbait nahiko azkar egin daitekeena.
- Zenbakia emango diegu, eta horretaz gain:
  - › Hurrengo tarte noiz izango den gogorarazi.
  - › Rola mantentzera gonbidatu beste tarteetan ere.
- Hirugarren tartearen ondoren, euskara mantentzeari buruz galdetuko zaie batez ere:
  - › Erraz mantendu al dute? Tarteren batean zaila egin zaie? Zailtasunak izan badituzte, hurrengo egunetakoei zer proposatu horiek gainditu ditzaten?
- Gaubelan hiru zenbakiak izango dituztenez, kaxa irekiko dute. Eta Mariri orrazia eskaintzeko ohorea izango dute.

\* Begirale bat Mariren mozorroa jantzita egongo da kanpoaldean eta denak bertara gerturatuko dira. Orazia jasotzean, Marik hitz egingo du.

## Materiala:

- Altxorra
- Galtzagorrien txapel edo praka gorriak
- Urrezko orrazia
- Kandadua (3 zenbakiduna)
- Mariren mozorroa (soineko zuria eta peluka luzea)

**Lotura honetan egindakoaren laburpen bat ikus daiteke: <https://www.youtube.com/watch?v=kNfxXHngz-Y&t=75s>**

**04.**

**AHOBIZI JARDUERA II:  
“HEZITZAILEA NAIZI!”**



# 04.

## AHOBIZI JARDUERA II: “HEZITZAILEA NAIZI!”

### Erronka:

- Hezitzaileak imitatzea lortu behar dute.
- Eguneko hiru tarte aukeratu dira, eta tarte bakoitzean tokatu zaion begiralea imitatzea izango da egitekoa. Lehengo tarte adi-adi egoteko tarte izango da.
  - › Gosaldu ondoren hasi eta lehenengo ekintzak irauten duen bitartean.
  - › Bazkalosteko tartean.
  - › Arratsaldeko tarte batean.

### Azalpena:

- Bost ahobiziek tarte horietan modu jakin batean jokatu behar dute.
- Azken tartearen amaiera aldera, bakoitza imitatu duen hezitzailearekin bilduko da eta baloraziotxo bat egingo dute.

### Istoria:

Hezitzaileak Euskal Herriko herri desberdinetatik datoz. Nongoak diren badakizue? Herri horiek non dauden badakizue? Eta nola hitz egiten dute herri horietan?

- Zuetako lauk hezitzaileak imitatzeko aukera izango duzue gaur! Nork izan nahi du hezitzaile?
- Hezitzaileek duten “pibilegioren” bat lortzeko haiek bezala egin behar duzue aukeratutako tarte horietan, ahalik eta ondoen imitatu behar dituzue.

### Materiala:

Hezitzaileek utzitako arropak.

### Girozte lana:

- Hezitzaileok jarrera aktiboa izan behar dugu eta xaxatzen ibili: ezaugarriak ondo betetzen al dituzte? Guk erabiltzen ditugun hitzak erabiltzen dituzte? Gure sekretutxoak dakizkitez? ...

### **Nortzuk izango dira ahobiziak?**

- Gosariko orduan dinamika azalduko diegu eta istorioa kontatuko diegu.
- Ahobizi izateko prest nor dauden galdetuko diegu.
- Lau aukeratu ditugu (eta besteei hurrengo egunetan izateko aukera dutela esango diegu).
- Ahobizi ez direnei laguntzeko jarrera izateko eskatuko diegu. Nahi badute, beraiek bezala jokatzeko dute, baina batez ere beraien lana erraztu.
- Bakoitza nor izango den adostean hezitzaileei beraien arropak edo gauzaren bat eskatu eta erabili!

### **Zer eskatuko zaie besteei?**

- Animatu behar dituzte beraien rola ondo betetzera eta lagundu egin behar diete. Berdin jokatzeko badute, askoz hobeto.

### **Egunean zehar balorazioak eta probak:**

- Erdiko eta azken tartean hezitzaile bakoitza bera imitatu duenarekin elkartuko da:
  - › Zer moduz aritu dira? Norbera imitatzea zaila edo erreza izan da? Hitz berririk ikasi dute? Beste euskalki batean hitz egitea zaila egin al zaie? Euskaraz hitz egin dute tarte horietan? ...
  - › Erronka lortuz gero, udalekuak bukatzerako argazki dotore bat jasoko dute eta hurrengo egunerako pribilegiotxoren bat izango dute.
    - › Hezitzaileek ze pribilegio eman adostu beharko dute aurretik.
  - › Bukaeran, ahobizi eta hezitzaileen argazkiak atera.

**05.**

**AHOBIZI JARDUERA III:  
“KOPLARI  
EDO RAPEROKAK”**



# 05.

## AHOBIZI JARDUERA III: “KOPLARI EDO RAPEROAK”

**Kopla\*:** kopla edo rap letraren zatia.

### Erronka:

- Egunean zehar hiru kopla\*. Koplek\* albiste bat osatzen dute. Albistearen hurrengo egunari begirako informazioa izango da:
  - › Koplak pistak izango dira eta 3 koplak lortuta albistearen errazago osatuko dute.
  - › Albistearen hurrengo egunean egingo duten zerbaitei. Bertsolariak edo raperoak datozela esango zaie.
- Eguneko hiru tarte aukeratu dira, eta tarte bakoitzean kopla bat lortu dezakete:
  - › Gosaldun ondoren hasi eta lehenengo ekintzak irauten duen bitartean.
  - › Bazkalosteko tarteetan.
  - › Arratsaldeko tarte batean.

### Azalpena:

- Bost ahobiziek (koplari edo raperoek) tarte horietan modu jakin batean jokatu behar dute.
- Hezitzaileetako batek ere modu berean jokatu beharko du.
- Tartearen amaiera aldera, bostak bilduko dira hezitzaile horrekin, eta galdera batzuk egingo dizkie.
- Galderen ondoren hezitzaileak asmakizun bat edo proba bat aurkeztuko die.
- Hori gainditzen dutenean, kopla lortuko dute.
- Gaubelan 3 koplekin\* albistearen osatu beharko dute.

### Hasiera:

- Leku nabarmen batean paper handi bat jarriko da, bi zutabetan banatuta. Albistearen osatuko duten koplak\* lortuz gero, zutabe batean idatziko ditugu.
- Jaikitzen diren mementotik, ikusi egin behar dute paper handia eta gosaltzen daudenean koplak\* kantatuz azalduko diegu zer egin behar duten.
- Aterpetxean zehar ere kartelak edo girotzeko gauzak jar daitezke.

## Istoriaa:

- Hezitzaileek koplak bidez emango dute azalpena.
- Albiste osoa jakiteko hiru koplak lortu behar dituzue.
- Koplak horiek lortzeko protagonistak zuetako bost izango dira. Zuetako bost izango zarete gaurko “koplariak”.
- Baina koplari moduan jokatu behar duzue, bestela ez duzue lortuko.
- Koplari edo raperoek hau egiten dute:
  - › Euskaraz egiten dute. Ez dakite gaztelaniaz, ez frantsesez, ez ingelesez. Beti euskaraz egiten dute eta errimak erabiliz.
  - › ADIBIDEZ: Goazen behingoz pisziNARA eta etorri zu nerekin AiNARA!
  - › Umorea eta bertsoa beti lotu izan dira, eta zuek ere horrela aritu behar duzue. Umorearekin eta besteak zirikatzen.
- Eguneko hiru tarteetan jokatu behar duzue horrela:
  - › Gosaldu ondoren hasi eta lehenengo jarduera amaitu arte.
  - › Bazkalostean.
  - › Arratsaldeko tartean.
- Tarte horien amaieran, koplari edo rapero nagusiak (hezitzaileetako batek), elkartu egingo zaituzte bost koplari edo raperoak eta galdera batzuk egingo dizkizue, baita proba bat gainditzeko eskatu ere. Orduan lortuko duzue koplak\*
- Dena ondo bidean, iluntzerako jakingo duzue albistea.

## Girotze lana:

- Ahobiziek ezizen bat jarriko diote beren buruari. Haien izenari bertsolari edo rapero famatu baten abizena edo izena gehituz. Adibidez. “Jon Lujanbio, Maialen Enbeita, Markel Basu...”
- Paparrean bertsolari edo rapero baten silueta eramango dute.
- Hezitzaileok jarrera aktiboa izan behar dugu eta xaxatzen ibili: ezaugarriak ondo betetzen al dituzte? Errimak erabiliz hitz egiten al dute? Bertsolariak bezala umorez al dabilta? Eta jarrera zirikatzailea al dute?

## Nortzuk izango dira ahobiziak?

- Gosariko orduan dinamika azalduko diegu eta azalpenak koplak\* kantatuz emango dizkiegu.
- Ahobizi izateko prest nortzuk dauden galdetuko diegu.
- Bost aukeratu ditugu (eta besteei hurrengo egunetan izateko aukera dutela esango diegu).

\* Oharra: guztiek izan behar dute ahobizi izateko aukera, eta beraz, egunez egun ahobiziak aldatu. Batzuk ez badira inoiz animatzen, egunean zehar beraiekin hitz egin eta hurrengo egunean animatu daitezten gonbidatu.



## **Zer eskatuko zaie besteei?**

- Koplariak edo raperoak animatu behar dituzte beraien rola ondo betetzera eta lagundu egin behar diete. Berdin jokatzen badute, askoz hobe. Paper handi horretan koplak\* edo errimatzen duten esaldi bidez albistea zein izango den asmatzen lagunduko diete. Koplak\* eta errimak baina ahoz esan eta koplariak edo raperoak idatzi beharko dituzte.

## **Egunean zehar balorazioak eta probak:**

- Tarte bakoitzaren amaieran, hezitzaile bat bost ahobiziek elkartuko da eta galdera batzuk egingo dizkie:
  - › Zer moduz aritu dira? Errima bidez aritu dira hitz egiten? Denbora guztian euskaraz egin dute?
  - › Garrantzi berezia emango zaio azken puntu honi: argi azalduko zaie guretzat klabe nagusia hori dela.
- Proba egin eta proba ongi betetzen badute, hezitzaileak albistearen parte den koplak\* emango die eta paper handian idatziko dute.
- Koplak\* paperean idatzi eta:
  - › Hurrengo tartearen noiz izango den gogorarazi.
  - › Rola mantentzera gonbidatu beste tarteetan ere.
- Hirugarren tartearen ondoren, euskara mantentzeari buruz galdetuko zaie batez ere:
  - › Erraz mantendu al dute? Tarteren batean zaila egin zaie? Zailtasunak izan badituzte, hurrengo egunetakoei zer proposatu behar zaie horiek gainditu ditzaten?
- Gaubelan hiru koplak\* izango dituzte eta denen artean abestuko dute. Albistea zein den asmatuko dute.
- Egun berean edo hurrengoan bertso afari edo rap afaria antolatu daiteke. Albistek honekin lotura izan dezake.

<https://www.youtube.com/watch?v=RrgWmw-17hc>

**06.**

**AHOBIZI JARDUERA IV:  
“ITSUA ETA  
ITSU-LAGUNA”**



# 06.

## AHOBIZI JARDUERA IV: “ITSUA ETA ITSU-LAGUNA”

### Erronka:

- Eguneko lau tarte aukeratu dira, eta tarte bakoitzean elkarri laguntzeko euskara hutsez aritu beharko dira. Ez dira tarte luzeak izango, gehienez ere ordu erdi ingurukoak.
  - › Gosaltzen.
  - › Denbora libreko tarte bat.
  - › Ekintza batera joateko tartean.
  - › Afaltzen.

### Azalpena:

- Eguneko 4 momentutan itsua eta itsu neska/mutilaren lekuan jarriko dira 4 bikote.
- Itsu-laguntzaileak itsuari laguntza eskaini beharko dio. batzuetan oinez laguntzen, jatekoa ematen... Baina nahitaezkoa izango da bien arteko komunikazioa eta konfiantza. Komunikazioak euskara hutsez izan beharko du eta galdera erantzunen bidez saiaturiko dira elkar ulertzen eta laguntzen.
- Paperak aldatuko dituzte egunean zehar. Ahobizi bakoitza bi aldiz izango da itsu neska/mutil eta bi aldiz, itsu.
- Tarte bakoitzaren aurretik hezitzaileek gogoraraziko die erronka hastera doala. Itsu moduan aritu behar duenak begiak estali beharko ditu zapi batekin.
- Tarte bakoitzaren ondoren taldetxoa bilduko da eta hezitzaile baten laguntzaz sentazioez hitz egingo dute: Zer moduz itsu moduan? Eta itsu laguntzaile moduan? Sentazioak? Zailtasunak? Adierazi moduan jokatu dute? (eta hor garrantzi berezia eman euskararen erabilerari, horretarako zailtasunei eta abar).

### Istoria:

- Hezitzaileek istorio bidez emango dute azalpena.

*TORMESKO ITSUMUTILAREN IPUINA EZAGUTZEN DUZUE? El lazarrillo de Tormes esaten da gaztelaniaz. 1554 inguruan idatzi zen gaztelaniazko nobela da. Lazaro Itsua zen erromes bati laguntzen ibili zen nobela hartan. Zirikatzailea zen oso itsumutila baina bere nagusia ez zen batere ergela! Batek zirikatu eta besteak agindu, ez zen bikote makala. Gauza bat baina ikasi zuten biek, batak bestearen laguntza behar zuela aurrera egiteko, itsuak ikusten ez zuelako eta itsumutilak bere nagusiarengandik jatekoa eta dirua lortu zezakeelako.*

*Gaur, ba, binaka arituko zarete. 4 bikote izango zarete gaurko itsu eta itsu-laguntzaileak. Itsuak begiak estalita izango ditu eta itsu-laguntzaileak egin beharrekoetan lagundu egingo dio (bazkaltzeko orduan, norabait joateko orduan...).*

*Elkarri laguntzea komeni zaizue, tarte bakoitzean paperak aldatuko baitira eta itsu izan dena itsu-laguntzailea izango da ondoren!! Elkar laguntzeko baina ezinbestean bete beharreko kontutxo batzuk badira:*

- Aukeratutako tarteetan elkarrekin egon behar duzue.
- Itsuak azkar eta ozen hitz egin behar du.
- Itsu-lagunak mantso eta xuabe.

Ondo pasatzeaz gain, elkar laguntzeaz gain, erronka ondo betetzen baduzue talde osoak sari bat lortuko du!

### **Nortzuk izango dira ahobiziak?**

- Aurreko eguneko gaubelan galdetuko diegu hurrengo eguneko ahobiziak nortzuk izango diren eta azalpena emango zaie.
- Ahobiziei laguntzeko, besteek itsua eta itsu-lagunari lagundu diezaiokete, baina modu berean jokatuz.

### **Egunean balorazioa:**

- Tarte bakoitzean hezitzaileek itsu eta itsu neska/mutilen bueltan egotea komeni da. Behar bezala ari direla ikusteko eta animoak emateko.
  - › SARIA: Koordinatzaileak bakarrik jakingo du zein den saria. Baina ahobiziei aurretik begiraleei zuzendutako zerbait izango dela adieraziko zaie, zehazki zer den baina ez zaie esango, gustatuko zaiela esango diegu. Autoebaluazioaren bidez rola nola bete duten baloratuko dute egunaren bukaeran hezitzaileekin. Orik 4ra (0 gutxi eta 4 asko) emaitza bat aterako da. Emaitza horrekin koordinatzaileak esango die zein den ahobiziek hurrengo egunerako duten saria.

**07.**

# **ERANSKINAK**

# 07.1

## ERANSKINA I - GALTZAGORRIAK

### HEZITZAILEENTZAT

#### GOIZEKO AZALPENA

Hemen daukazue Mariren orrazia!

Berrizko etxeetan zur eta lur daude. Orrazia Atxondo inguruan zegoela uste zuten denek baina herrian etxe bateko obra egiten ari zirela kutxa bat agertu da eta Mariren orrazia bertan dagoela jakin dute. Baina kutxa norbaitek kandadu batez itxi zuen eta ezin dute ireki. Galtzagorriak dira hori irekitzeko gai baina kutxa irekitzeko hiru zenbakiak lortu behar dituzue. Kutxa zabaldu eta berehala Mariren esku utzi behar duzue orrazia bestela urrezko orrazia desagertu eta orrazi arrunt bilakatuko da, bere botere eta balioa galduz.

Zenbaki horiek lortzeko protagonistak zuetako bost izango dira. Zuetako bost izango zarete gaurko "galtzagorriak" eta hezitzaile bat ere "galtzagorria" izango da.

- Baina garai horretako galtzagorrien moduan jokatu behar duzue, bestela ez duzue lortuko.
- Gure "galtzagorriek", hau egiten dute:
  - › Ateak atzera begira zeharkatu eta hitz egiten: Ba al dakizue Mariren kobazulotik kobazulora begira atera behar dela beti? Mariri errespetua agertzeko modua da eta zuek ere ohitura hau mantendu behar duzue. Nola? Ahobizi izango zareten tarte guztietan ateak horrela zeharkatuz, uzten duzuen gela edo guneari bizkarra eman gabe. Eta gainera zeharkatzen duzuen mementoan hitz egiten pasatu behar duzue. Hau da, edozein ate zeharkatzean, atzera begira eta zerbait esaten pasatu behar duzue, euskaraz, Mariri horixe gustatzen zaio eta.
  - › Ateak zeharkatzen ez zaudeten mementoetan ere euskaraz egin behar duzue, Marik alde guztietan dauzka belarri eta begiak eta jakin badaki orraziaren kaxa zuen eskutan dagoela. Marik hizkuntza asko jakin arren euskara du gustuko eta bere botere beldurgarrienak erabiltzeko gai da bere orrazia esku okerretan dabilela ikusten badu.
  - › Gogoratu galtzagorriak zaretela! Galtzagorriak langileak eta bihurriak dira. Gizakiak laguntzen aritzen zarete. Haien inguruan bueltaka eta bueltaka hasten zarete egitekorik ez duzuenean. *Eta orain zer? Eta orain zer?* da zuen galderarik gustukoena. Ez ahaztu, ba, bihurrikeria horiekin!

- Eguneko hiru tarteetan jokatu behar duzue horrela:
  - › Gosaldu ondoren hasi eta lehenengo jarduera amaitu arte.
  - › Bazkalostean.
  - › Arratsaldeko tartean.
- Tarte horien amaieran, galtzagorri nagusiak (hezitzaileetako batek), elkartu egingo zaituzte bost galtzagorriak eta galdera batzuk egingo dizkizue, baita proba bat gainditzeko eskatu ere. Orduan lortuko duzue zenbakia.
- Dena ondo badao, iluntzerako kaxa zabaltzeko zenbakiak eta orrazia lortuko duzue.

### **NORTZUK IZANGO DIRA GALTZAGORRIAK?**

- Bakoitzari txapel edo peto gorri bat emango zaio.
- Galtzagorri bakoitzari izen bat asmatzeko eskatu.

### **MATERIALA**

Kutxa, 3 zenbakidun kandadua, 6 txapel edo peto gorri, urrezko orrazia eta Marirentzat soineko eta peluka luzea.

# 07.1

## ERANSKINA I - GALTZAGORRIAK

### HEZITZAILEENTZAT

#### 1. PROBA

Galtzagorriak urduri daude, gelatik sartu eta irten dabilta, **elkar zirikatzen, jende artean bueltaka eta oihuka**. Gelara aurrera begira sartu behar duzue baina irten ere hala egin behar duzue elkarrizketa hau antzestu behar duzue bitartean. (esaldiak prest daude; bakoitzari bat eman).

1. - Atzera eta aurrera jarraitzen badugu ez dugu inoiz Mariren orrazia lortuko.
2. - Hau zorabioa! Sartzeko eta irteteko norabide berera begira!
3. - Baina nork asmatuko du lelokeria hau?
4. - Isildu! Marik entzuten bazaitu, ez dugu gure nahia lortuko eta!
5. - Nik, behintzat, Mariren esana bete eta horrela jarraituko dut. Atzera eta aurrera baina gelari bizkar eman gabe! Begira! Atzera eta aurrera! Atzera eta aurrera!
6. - Denon artean lortuko ditugu zenbakiak! Bai horixe!!! Denak jende artean bueltaka hasiko dira, oihuka eta orain zer? Eta orain zer?

#### Balorazio fitxa (hezitzaileak betetzeko)

	BAI	EZ	Bai/Ez	Besterik
<b>LEHENENGO TARTEA</b>				
Gustura aritu dira?				
Ateetatik pasatzean ondo egin duzue?				
Jendearen inguruan bueltaka eta zirikatzen aritu zarete?				
Dinamikarekin jarraitzeko zerbait aldatu?				
<b>DENBORA GUZTIAN EUSKARAZ EGIN DUTE?</b>				

Kandaduaren lehen zenbakia:



# 07.1

## ERANSKINA I - GALTZAGORRIAK

### HEZITZAILEENTZAT

#### 2. PROBA

Hezitzaile edo eta koordinatzaileen adin edo bestelako datuak kontuan izanda hurrengo zenbakiaren emaitza lortu behar duzue. Hau da proba matematikoa (hezitzaileek prestatzeko).

#### Balorazio fitxa (hezitzaileak betetzeko)

	BAI	EZ	Bai/Ez	Besterik
<b>LEHENENGO TARTEA</b>				
Gustura aritu dira?				
Ateetatik pasatzean ondo egin duzue?				
Jendearen inguruan bueltaka eta zirikatzen aritu zarete?				
Dinamikarekin jarraitzeko zerbait aldatu?				
<b>DENBORA GUZTIAN EUSKARAZ EGIN DUTE?</b>				

Kandaduaren bigarren zenbakia:

# 07.1

## ERANSKINA I - GALTZAGORRIAK

### HEZITZAILEENTZAT

#### 3. PROBA

Mariren istoria gehiago ezagutzeko esaldi hauek osatu behar dituzue.

- Mari da gure irudirik behinena. Lurraren antzirudia da, eta ahaide edo jenio guztien ama. Ume bi izan zituen senar Majurekin: \_\_\_\_\_ eta Mikelats. Majurekin elkartzen denean, sekulako \_\_\_\_\_ sortzen ditu.
- Mariren etxea \_\_\_\_\_ da. Etxe asko ditu Marik, eta denak gure mendietan: Anboton, Oizen, Mugarran, Aketegin, Aizkorrin, Txindokin, Murumendin, Gorbeian eta abar. Mari lur barrutik kobazuloetan zehar mugitzen denean, \_\_\_\_\_ edo oilo hankak izaten ditu; eta leizeetatik ateratzen denean, emakume eder moduan azaltzen zaigu.
- Dama elegantea eta ederra da Mari, lurpekoen andere, trumoi eta tximisten gidari, aberatsa eta ibiltaria: zazpi urtetik zazpi urtera mugitzen da leize batetik bestera argi biziz inguraturik, suzko bola baten moduan; lau zaldik eramandako gurdi baten gainean, edo \_\_\_\_\_ betearen aurrean ere ikusi izan dute. Urrezko orrazi batez orraztu eta orraztu dihardu egun guztian.

*ATARRABI, EKAITZAK, LEIZEA, AHUNTZ, ILARGI*

3. BALORAZIOA. SAKONTZEN	BAI	EZ	Bai/Ez	Besterik
Gustura aritu dira?				
Euskara mantentzeko zailtasunik izan duzue? Zertan?				
Anekdotarik?				
Zer aldatu beharko genuke hurrengorako?				
Jarduera lagungarria da euskaraz aritzeko?				
Eta motibagarria?				
Besterik?				

Kandaduaren hirugarren zenbakia:

# 07.1

## ERANSKINA I – GALTZAGORRIAK

### GALTZAGORRIEI BANATZEKO ESALDIAK

#### 1. PROBA

**1. proba egiteko elkarrizketa papertxoetan izango dugu, ahobizi bakoitzak esaldi bat izango du, baita hezitzaile ahobiziak ere. Bukaerako esaldia denok batera.**

1. - *Atzera eta aurrera jarraitzen badugu ez dugu inoiz Mariren orrazia lortuko*  
BUKAERAN (denok batera jende artean bueltaka): *eta orain zer? Eta orain zer?*  
-----

2. - *Hau zorabioa! Sartzeko eta irteteko norabide berera begira!*  
BUKAERAN (denok batera jende artean bueltaka): *eta orain zer? Eta orain zer?*  
-----

3. - *Baina nork asmatuko du lelokeria hau?*  
BUKAERAN (denok batera jende artean bueltaka): *eta orain zer? Eta orain zer?*  
-----

4. - *Isildu! Marik entzuten bazaitu, ez dugu gure nahia lortuko eta!*  
BUKAERAN (denok batera jende artean bueltaka): *eta orain zer? Eta orain zer?*  
-----

5. - *Nik, behintzat, Mariren esana bete eta horrela jarraituko dut. Atzera eta aurrera baina gelari bizkar eman gabe! Begira! Atzera eta aurrera! Atzera eta aurrera!*  
BUKAERAN (denok batera jende artean bueltaka): *eta orain zer? Eta orain zer?*  
-----

6. - *Denon artean lortuko ditugu zenbakiak! Bai horixe!!!*  
BUKAERAN (denok batera jende artean bueltaka): *Eta orain zer? Eta orain zer?*

# 07.1

## ERANSKINA I – GALTZAGORRIAK

### GALTZAGORRIEI BANATZEKO ESALDIAK

#### 3. PROBA

Esaldia osatu hutsuneak betez. Hizki zopan daude hitzak.

- Mari da gure irudirik behinena. Lurraren antzirudia da, eta ahaide edo jenio guztien ama. Ume bi izan zituen senar Majurekin: \_\_\_\_\_ eta Mikelats. Majurekin elkartzen denean, sekulako \_\_\_\_\_ sortzen ditu.
- Mariren etxea \_\_\_\_\_ da. Etxe asko ditu Marik, eta denak gure mendietan: Anboton, Oizen, Mugarran, Aketegin, Aizkorrin, Txindokin, Murumendin, Gorbeian eta abar. Mari lur barrutik kobazuloetan zehar mugitzen denean, \_\_\_\_\_ edo oilo hankak izaten ditu; eta leizeetatik ateratzen denean, emakume eder moduan azaltzen zaigu.
- Dama elegantea eta ederra da Mari, lurpekoen andere, trumoi eta tximisten gidari, aberatsa eta ibiltaria: zazpi urtetik zazpi urtera mugitzen da leize batetik bestera argi biziz inguraturik, suzko bola baten moduan; lau zaldik eramandako gurdi baten gainean, edo \_\_\_\_\_ betearen aurrean ere ikusi izan dute. Urrezko orrazi batez orraztu eta orraztu dihardu egun guztian.

#### MARI EZAGUTZEN

I	V	V	C	Q	H	W	W	J	N	E	F	O	W	U
Ñ	G	L	R	H	V	K	N	J	D	N	I	G	J	M
D	O	R	A	T	H	Z	A	L	J	H	Z	A	R	C
V	O	I	A	X	K	D	A	M	X	V	C	O	H	K
S	A	H	X	L	S	R	C	Y	V	H	B	H	K	A
Ñ	R	B	K	V	I	Y	M	E	W	L	H	L	V	X
H	Y	H	V	I	S	V	M	J	H	A	P	B	X	B
O	R	L	V	Q	T	Z	T	N	U	H	A	X	Z	D
F	M	F	H	I	B	A	R	R	A	T	A	Z	A	P
E	K	A	I	T	Z	A	K	Z	E	T	R	Y	E	J
A	J	Q	Q	Z	R	Y	X	Q	I	O	T	C	Z	B
L	A	F	W	Y	K	N	F	D	B	S	U	P	I	Ñ
Y	Z	C	N	N	C	P	J	V	E	R	Y	N	E	R
M	K	Q	J	L	X	Ñ	G	G	J	U	R	G	L	D
C	G	A	Ñ	R	P	A	E	Y	M	Z	Z	H	P	V

# 07.2

## ERANSKINA II - HEZITZAILEA NAIZ!

### HEZITZAILEENTZAT

#### Goizeko azalpena

Nork izan nahi du gaur gutako hezitzailea?

Hitz egiterakoan eta bestelakoetan (ibilera, barre egiteko modua, bakoitzaren izaera azpimarratzen dituzten mugimendu edo bestelakoak...) bakoitzak tokatu edo adostu duen hezitzailea imitatu beharko du.

Eguna hiru tartetan banatu dugu.

Lehenengo tartea:

- Gosaldu ondoren hasi eta lehenengo jarduera amaitu arte. Begiraleak aztertu eta hauek imitatzeko zer egin behar duten pentsatuko dute. Hezitzaileei galderak egitea ere posible da. Oso garrantzitsua izango da haiek erabiltzen duten euskalkia ahalik eta ondoen imitatzea.

Eguneko bi tartetan jokatu behar duzue horrela:

- Bazkalostean.
- Arratsaldeko tartean.

#### SARI BANAKETA

4 ahobizien artean oskarrak banatuko ditugu gaubelan:

- Karakterizazio onenari (mozorroaren bidez hezitzaileen itxura onena hartu duenari).
- Antzezpen onenari.
- Hezitzailearen euskalkia ondoen erabili dutenei (2 ahobizi).

# 07.2

## ERANSKINA II - HEZITZAILEA NAIZ!

### HEZITZAILEENTZAT

#### Balorazio fitxa (hezitzaileak betetzeko)

3. BALORAZIOA. SAKONTZEN	BAI	EZ	Bai/Ez	Besterik
Gustura aritu dira?				
Euskara mantentzeko zailtasunik izan duzue? Zertan?				
Euskalkiko hitzak sartu dituzue? Bakoitzaren mugimenduak eta bestelakoak egin dituzue?				
Zer aldatu beharko genuke hurrengorako?				
Jarduera lagungarria da euskaraz aritzeko?				
Eta motibagarria?				
Besterik?				

# 07.3

## ERANSKINA III – KOPLARIAK

### HEZITZAILEENTZAT

#### Goizeko azalpena

Paper handi bat egongo da denen bistara jaikitzen direnerako. Eta azalpeneko zatitxo bat koplak bidez jasota aurkituko dute.

Gaurkoan ere ahobiziek  
Izango duzue lana!  
Errima joku bertso doinuez  
Hor hasten da zuen plana.

Nork izan nahi du gaur ahobizi  
Nork izan nahi du txirrita  
Saiatuz gero lortuko duzu  
Errima joku polita.

Egin beharrekoen azalpen kantuan emango diegu:

Biharko egunez sorpresatxo bat  
Omen daukagu Berrizen  
Zer izango den ahobiziek  
Asmatu beharko dute hemen

Kopla zaleak izan gabe ere  
Izan zaitezke saltsero  
Errima biziz hitz egin eta  
Sorpresasmatu gero

Gaurko eguneko hiru tartetan  
Zure giltza da errima  
Horrela hitz egin eta saiatu  
Errimatzen mi edo ma

Bertsolariak izaten dute  
Hizketan piper ta gatza  
Saiatu zu ere horrela izaten  
Jarriz inguruan saltsa

Hiru probak gairitu ondoren  
Hiru koplak pista eskutan  
Pista hoiekin sorpresa hori  
Asmatzea zuen baitan

Pista bakoitza paper haundian  
Idatzi argi ulergarri  
Denen sorpresa denen artean  
Asmatzea lagungarri

Sorpresa hori zein izango den  
Azaldu denei gaubelan  
Horrela denok jakingo dugu  
Hurrengo plana zelan dan

- Eguneko hiru tarteetan jokatu behar duzue horrela:
  - > Gosaldu ondoren hasi eta lehenengo jarduera amaitu arte.
  - > Bazkalostean.
  - > Arratsaldeko tartean.

## **ZEINTZUK DIRA GAURKO KOPLARIAK?**

Banatu bakoitzari bere pegatina eta idatzi dezala bere bertsolari izena.

### ***ADI hezitzaileok.***

- Bigarren proban abestiak entzuteko zerbait beharko duzue.
- Koplak eta albistea egokiak diren begiratu eta egokitu nahieran.



# 07.3

## ERANSKINA III – KOPLARIAK

### HEZITZAILEENTZAT

#### 1. PROBA:

NORTZUK DIRA ARGAZKIKO PERTSONAIK? Euskal musika eta bertsolaritzarekin lotura duten 4 emakumeren argazkiak. Lehengo argazkiak bakarrik eman eta ezin badute izenekin lagundu (izenak eman eta ordenatu dezatela).

*Miren Amuriza, Miren Narbaiza "Mice", Elena Caballero "La Basu" eta Maialen Arzallus.*

#### Balorazio fitxak (hezitzaileak betetzeko)

	BAI	EZ	Bai/Ez	Besterik
<b>LEHENENGO TARTEA</b>				
Gustura aritu dira?				
Errimak eginez egin dituzue tarte horietan esaldiak?				
Hizketan zirikatzaile aritu zarete?				
Dinamikarekin jarraitzeko zerbait aldatu?				
<b>DENBORA GUZTIAN EUSKARAZ EGIN DUTE?</b>				

#### Lehen koplak:

Ahobizien erronka hontan  
Sartu badugu bertsoa  
Sorpresa nondik ibiliko den  
Hartu duzue susmoa

## 2. PROBA:

### · Zein da abesti honetako abeslaria?

4 abesti ipiniko dizkiegu entzuteko eta bakoitzean nor abesten duen asmatu behar dute (aurreko probakoak dira).

<https://www.youtube.com/watch?v=Sl5RxpW9gE4> MIREN NARBAIZA

<https://www.youtube.com/watch?v=I5vsjhZCMiQ> MIREN AMURIZA

<https://www.youtube.com/watch?v=MvMpWKDjhs0> MAIALEN ARZALLUS

<https://www.youtube.com/watch?v=6wRdVhiaqvA> LA BASU

### Balorazio fitxak (hezitzaileak betetzeko)

	BAI	EZ	Bai/Ez	Besterik
<b>BIGARREN TARTEA</b>				
Gustura aritu dira?				
Errimak eginez egin dituzue tarte horietan esaldiak?				
Hizketan zirikatzaile aritu zarete?				
Dinamikarekin jarraitzeko zerbait aldatu?				
<b>DENBORA GUZTIAN EUSKARAZ EGIN DUTE?</b>				

### Bigarren koplak:

Kazetari bat, bertsolari bat  
Neska gazte ta jatorra  
Berrizko herrian eta berrian  
Pista handia da horra

### IDATZI PAPEREAN!!

# 07.3

## ERANSKINA III – KOPLARIAK

### HEZITZAILEENTZAT

#### 3. PROBA:

Denon artean koplaxo bat asmatu eta abestu.

3. BALORAZIOA. SAKONTZEN	BAI	EZ	Bai/Ez	Besterik
Gustura aritu dira?				
Euskara mantentzeko zailtasunik izan duzue? Zertan?				
Anekdotarik?				
Zer aldatu beharko genuke hurrengorako?				
Jarduera lagungarria da euskaraz aritzeko?				
Eta motibagarria?				
Besterik?				

#### Hirugarren kopa:

Bertsolaria gure artera  
Etorriko al da benetan  
Bertsolariek abesten dute  
Sarri formatu honetan

#### ZEIN DA ALBISTEA??

# 07.3

## ERANSKINA IV – KOPLARIAK

### KOPLARI EDO RAPEROEI BANATZEKO

#### 1. proba

Nortzuk dira hurrengo abeslari hauek?



1. \_\_\_\_\_



2. \_\_\_\_\_



3. \_\_\_\_\_



4. \_\_\_\_\_

*\*papera gorde bigarren probarako!!*

# 07.4

## ERANSKINA V - ITSUA ETA ITSU-LAGUNA

### HEZITZAILEENTZAT

#### Goizeko azalpena

##### Istoria

- Hezitzaileek istorio bidez emango dute azalpena.

TORMESKO ITSUMUTILAREN IPUINA EZAGUTZEN DUZUE? El lazarillo de Tormes esaten da gaztelaniaz. 1554 inguruan idatzi zen gaztelaniazko nobela da. Lazaro itsua zen erromes bati laguntzen ibili zen nobela hartan. Zirikatzailea zen oso itsumutila baina bere nagusia ez zen batere ergela! Batek zirikatu eta besteak agindu, ez zen bikote makala. Gauza bat baina ikasi zuten biek, batak bestearen laguntza behar zuela aurrera egiteko, itsuak ikusten ez zuelako eta itsumutilak bere nagusiarengandik jatekoa eta dirua lortu zezakeelako.

Gaurkoan beraz, binaka arituko zarete. 4 bikote izango zarete gaurko itsu eta itsu-laguntzaileak. Itsuak begiak estalita izango ditu eta itsu-laguntzaileak egin beharrekoetan lagunduko dio (bazkaltzeko orduan, norabait joateko orduan...).

Elkarri laguntzea komeni zaizue, tarte bakoitzean paperak aldatuko baitira eta itsu izan dena itsu-laguntzailea izango da ondoren!! Elkar laguntzeko baina ezinbestean bete beharreko kontutxo batzuk badira:

- Aukeratutako tartetean elkarrekin egon behar duzue.
- Itsuak azkar hitz egin behar du eta ozen.
- Itsu-laguntzaileak mantso eta xuabe.

Ondo pasatzeaz gain, elkar laguntzeaz gain, erronka ondo betetzen baduzue hezitzaileak zirikatzeiko aukera emango dizuen saria lortuko duzue. Hezitzaileek ez dakite zer den baina egon ziur itsu eta itsu-laguntzaile izateko bidean ongi aritu bazarete hurrengo egunean ongi pasatzeko aukera izango duzuela!! Gau-belan jakingo dugu zertaz ari garen!!!

# 07.4

## ERANSKINA V - ITSUA ETA ITSU-LAGUNA

### HEZITZAILEENTZAT

#### Balorazioa

Bi balorazio memento izango ditugu. Lehen bi tarteetan ondoren lehengoa. Eta azken bi tarteetan ondoren bigarrena. Bigarren balorazioaren ondoren sarirako baliagarria izango zaien zenbakia eskuratu behar dute.

#### Balorazio fitxa I (hezitzaileak betetzeko)

	BAI	EZ	Bai/Ez	Besterik
<b>LEHENENGO TARTEA</b>				
Gustura aritu dira?				
Itsua ozen eta azkar hitz egin du?				
Itsu-laguntzaileak mantso eta xuabe hitz egin du?				
Elkarri lagundu diozue?				
Dinamikarekin jarraitzeko zerbait aldatu?				
<b>DENBORA GUZTIAN EUSKARAZ EGIN DUTE?</b>				

#### Balorazio fitxa II (hezitzaileak betetzeko)

<b>2. BALORAZIOA. SAKONTZEN</b>	BAI	EZ	Bai/Ez	Besterik
Gustura aritu dira?				
Euskara mantentzeko zailtasunik izan duzue? Zertan?				
Anekdotarik?				
Jarduera lagungarria da euskaraz aritzeko?				
Eta motibagarria?				
Besterik?				

# 07.4

## ERANSKINA V - ITSUA ETA ITSU-LAGUNA

### HEZITZAILEENTZAT

#### Zenbatetan erabili duzue euskara?

Hezitzaileek entzundakoa eta haiek aitortzen dutenarekin adostekoa. Puntuatu 1etik 4ra. Markatu aukeratu duzuen eta koordinatzaileari eman honen berri!!

Euskara oso gutxi: 1

Euskara pixka bat: 2

Euskara gehienetan: 3

Dena euskaraz: 4

<b>1</b> euskara oso gutxi	Hezitzaileak
<b>2</b> euskara pixka bat	Hezitzaile bi
<b>3</b> euskara gehienetan	Hezitzaileak 2 mementotan
<b>4</b> euskaraz denbora osoan	Hezitzaileak 3 mementotan

Gaubelan emango du koordinatzaileak honen berri. Errefortzu positiboak emateko aprobeixatu eta emaitza ez bada oso ona izan, animatu saiatzera, ongi egingo dute eta!!!

**08.**

**EBALUATZEKO  
BALIABIDEAK**



# 08

## EBALUATZEKO BALIABIDEAK

---

---

### EBALUATZEKO BALIABIDEAK

---

Hizkuntza-helburuen eta euskararen erabileraren lanketan egindakoa baloratu ahal izateko lau tresna aurkezten dira gida honetan:

- Eguneroko jarraipen fitxa hezitzaileentzat
- Hasierako galdetegia parte hartzaileentzat
- Amaierako galdetegia parte hartzaileentzat
- Amaierako galdetegia hezitzaileentzat

---

## EGUNEROKO JARRAIPEN FITXA HEZITZAILEENTZAT

---

Jarraipen fitxa hau egunero hezitzaile taldeak betetzea komeni da. Ez da beharrezkoa denbora askorik eskaintzea, baina egunero betetzen bada, benetan egiten ari garena baloratu ahal izango da, lorpenak eta zailtasunak ikusi ahal izango dira, eta erabakiak hartu beharrezkoa bada.

Eguna: _____	
<b>Oinarrizko estrategiak</b>	Elkarrizketa asko sortu edo parte hartzea- Egoera eta une ezberdinak baliatzea- Erdarazko elkarrizketak euskarara bideratzea- Ahalegina eskatzea- Errefortzuak ematea  Zein dira sentrazioak? Ondo aritu gara? Zerbait aldatzen edo indartzen saiatu beharko genuke?
Oro har, egunean zehar: Hezitzaile Berritsu moduan aritu gara modu kontziente eta aktibo batean?	
Ibilaldiren bat egin dugu? Modu oso kontzientean aritu gara? Taldez talde ibili gara? Erraz lortu dugu erdaratik euskarara ekartzea? Laguntza bilatu dugu? Ahalegina eskatu behar izan diegu? Ahalegina eskatzea merezi duela ikusi baina mementoa ez zela egokia baloratu badugu, gero bilatu dugu egoera hori? Tresna osagarriak erabili ditugu (ahobiziaz, abestiak...)? Lagungarriak izan dira? Errefortzu positiboak eman dizkiegu?	

Jantokian: Espazioa ondo baliatu dugu? Taldez talde ibili gara? Eragin dugu elkarrizketetan? Gutxieneko helburua argi izan dugu? Lortzen dugu aurrerapausoa, txikia bada ere, ematea? Ahalegina eskatu behar izan diegu? Errefortzu positiboak eman dizkiegu?...
Eskulanak: eskulanik egin dugu? Egin badugu espazioa ondo antolatu dugu eragin ahal izateko? Hezitzaile Berritsuak izan gara? Elkarrizketa askotan eragin dugu? Ahalegina eskatu diegu? Laguntza eskaini diegu? Errefortzu positiboak eman dizkiegu?

<b>Programazioan txertatzeko jarduerak</b>	<p><i>Denbora librerako-Txangoetarako-Gaubeletarako-Gynkanak-Hizkuntza jolasak</i></p> <p><i>Sua-Pareko-Story Cubes- Hitzez-hitz (Password)-Kortxoak-Argi beltza- Zuri-Giza irudiak-Hau ez da nirea-Mc Gyver ginkana-Meme lehiaketa- Merkanteak eta piratak-Maite zaitut-3 lerroan-irentsi!-postontzi hitzontzia-karaokea-</i></p> <p>Baten bat erabiltzea aurreikusia genuen? Erabili dugu? Zein dira sentrazioak?</p> <p>Lehendik proposatutakoren bat erabiltzen jarraitzen dute? Jarduera baliagarriak dira?</p>

<b>Ahobiziak</b>	<p>Aurreikusia zegoen jardueraren bat? Zein? Zer moduz? Zein dira sentrazioak?</p> <p><i>(kontuan izan ahobizi jarduera bakoitzak bere galdetegia duela egunean zehar betetzeko ahobiziekin)</i></p>

<b>Euskararen erabileraren inguruan</b>	Gauza deigarriren bat? Erabilera jarduera gidatuetan eta beraien kabuz dauden egoeretan, aurrerapausoak, atzerapausoak, jarrerak...

---

## UDALEKUEN HASIERAKO GALDETEGIA

---

Ondoren proposatzen den galdetegi hau edo antzekoren bat udalekuen hasieran erabil daiteke. Bakoitzak betetzea izan daiteke modu bat, edo talde txikietan betetzea oso egokia izan daiteke. Modu horretan lanketa informalagoa eta ahozkoa izango da.

Helburuak hiru dira:

1-Parte hartzaileen hizkuntza-ibilbidea ikustea, eta bereziki euskararekiko nolako harremana duten ikustea.

2- Euskararen erabileraren gaia modu esplizituan aurkeztea: udalekuetako helburuetako bat euskara sustatzea ere badela adieraztea.

3- Mezu egoki batzuk ematea. Hauek, adibidez, egokiak izan daitezke:

- Euskara asko erabiltzen lagundu nahi diegula, eta bide horretatik euskaraz ondo pasatzen lagundu nahi diegula.
- Eskolaz kanpo euskara erabiltzeko ohitura badutenen kasuan: hemen ere euskara asko erabiltzea nahi genukeela, eta bide horretatik euskaraz aritzeko ohitura gutxiago dutenei horretan laguntzea eta erraztasunak ematea nahiko genukeela.
- Eskolaz kanpo euskara erabiltzeko aukera gutxi dutenen kasuan: euskaraz ondo pasatzeko aukera ona dutela, guk eta inguruan dituztenek lagunduko diegula, eta gainera, euskara asko erabiltzen badute, gero eta errazago egingo dutela.

Une ona izan daiteke Ahobizi jarduerak azaltzeko: helburuak, dinamika eta abar.

**Euskaldun izateko mila modu daude: zein da zure ibilbidea?**

<b>Gurasoekin</b>	Euskaraz egiten dut
	Batekin bai, bestearekin ez
	Tarteka edo pixka bat
	Ez dugu euskaraz egiten
<b>Aitona-amonekin edo osaba-izebekin (gaur egun harremana duzunekin)</b>	Denekin euskaraz egiten dut
	Batzuekin euskaraz egiten dut
	Batzuekin tarteka edo pixka bat
	Ez dugu euskaraz egiten
<b>Anai-arrebekin</b>	Euskaraz egiten dut
	Tarteka edo pixka bat
	Ez dugu egiten
	Ez dut anai-arrebarik
<b>Lehengusuekin</b>	Denekin euskaraz egiten dut
	Batzuekin euskaraz egiten dut
	Batzuekin tarteka edo pixka bat
	Ez dugu euskaraz egiten
	Ez dut lehengusurik (edo gaur egun ez dut harremanik)

<b>Telebista</b>	Euskaraz asko ikusten dut
	Euskaraz gutxi ikusten dut
	Ez dut euskaraz ikusten
	Ez dut telebista ikusten
<b>Sare sozialak: watsapak, instagraman...</b>	Euskaraz asko erabiltzen ditut
	Euskaraz gutxi erabiltzen ditut
	Euskaraz ez ditut erabiltzen
	Ez naiz sare sozialetan aritzen
<b>Musika</b>	Euskarazko musika asko entzuten dut
	Euskarazko musika pixka bat entzuten dut
	Ez dut euskarazko musikarik entzuten

<b>Irakasleekin</b>	Euskaraz egiten dut
	Gehiena euskaraz egiten dut
	Euskaraz pixka bat egiten dut
	Ez dut euskaraz egiten
<b>Ikaskideekin ikasgelan</b>	Euskaraz egiten dut
	Gehiena euskaraz egiten dut
	Euskaraz pixka bat egiten dut
	Ez dut euskaraz egiten
<b>Ikaskideekin patioan</b>	Euskaraz egiten dut
	Gehiena euskaraz egiten dut
	Euskaraz pixka bat egiten dut
	Ez dut euskaraz egiten

<b>Lagunekin kalean</b>	Euskaraz egiten dut
	Gehiena euskaraz egiten dut
	Euskaraz pixka bat egiten dut
	Ez dut euskaraz egiten
<b>Eskola ordutik kanpoko jardueretan</b>	Jarduerak euskaraz dira
	Jarduera batzuk euskaraz dira
	Jarduera bakarren bat euskaraz da
	Jarduerak erdaraz dira

**Besterik:**

---

## AMAIERAKO GALDETEGIA PARTAIDEENTZAT

---

Azken egunean, goizeko ekintzaren edo arratsaldeko ekintzaren inguruan, partaideekin udalekuei buruzko balorazio bat egitea aproposa da, eta hor euskararen gaiari ere lekua egitea.

Dinamikoa izatea lortu behar da, eta indibiduala izan beharrean, talde txikietan eta talde handian egin daiteke.

Eredu bat erantsi da gida honetan, adibide moduan erabil daiteke.

Horretaz gain, balorazio saioaren amaiera aldera, kide bakoitzari orri zuri bat ere ematea oso egokia izan daiteke. Orri zuri horretan nahi duena idatzi dezake bakoitzak: Udalekuen inguruan eta euskararen erabileraren inguruan nahi dutena idatzi dezatela eskatuko zaie (zer izan duten gustuko, zer ez, zein diren sententzioak edo dena delakoa). Hor jasotako informazioa ere balorazioetan txertatu daiteke.

<b>Galdera adibideak</b>	
<b>Taldea eta tokia</b>	Zer iruditu zaizue lekua? Aterpetxea? Herria? Hondartza? Zer da gehien gustatu zaizuen? Zer gutxien? Lagun berriak egin dituzue? Taldean gustura aritu zarete?...
<b>Jarduerak eta antolaketa</b>	Zein dira gehien gustatu zaizkizuen jarduerak? Eta gutxien? Jarduera berezietan disfrutatu duzue? Goazen, surf, itsasontzia... Eta bestelako jardueretan? Jolasak, mahai jolasak...
<b>Ahobiziak</b>	Dinamika batzuk euskararen erabilerarekin lotuta daude eta rol bat hartzeko eskatu izan dizuegu. Zer moduz? Gustura aritu zarete? Zein izan dira hoberenak? Eta eskasena? Laguntzen du euskaraz ondo pasatzen eta harremanetan euskara mantentzen?...



<b>Sare sozialak</b>	Gustatu zaizue sare sozialekin egin dena? Berria izan da? Zer izan da deigarriena? ...
<b>Euskararen erabilera</b>	Udalekuen helburuetako bat euskararen erabilera indartzea zen. Zer moduz aritu zarete? Zein dira sentrazioak? Asko erabili duzue? Uste baino gehiago? Eroso aritu zarete? Batua-euskalkiak zer moduz? ...

<b>Dinamika adibidea</b>	
<p>Lau talde egin. Hezitzaileek eta koordinatzaileak gai bana hartu. Talde bakoitzari gai bat eman, eta horretaz gain, guztietan euskararen erabileraren gaia ere bai. Taldeka gai horiek landuko dituzte eta hezitzaileak ideia nagusienak bilduko ditu.</p> <p>Hasieran modu irekian aurkeztuko zaizkie. Adibidez: egindako jarduerak eta antolaketa. Zer datorkizue burura? Partaideek burua datorkiena esango dute. Gehiago sortu behar dela ikusi ezkerro, hezitzaileak galdera gehiago eta zehatzagoak ere egin ahal izango ditu.</p> <p>Ondoren, talde osoari azaldu talde bakoitzak landutakoa, eta besteek ideiak osatu, iritziak eman, eta abar.</p> <p>Ondo egon daiteke, bigarren zati honekin hasi aurretik, aurre-saioretan Udaleku mundial batzuk zer behar zuten galdetzerakoan erantzun zutena aipatzea. Bete al dira espektatibak? Gertu? Urrun? Zertan bai? Zertan ez? Zertan hobetu dira?...</p>	

## AMAIERAKO GALDETEGIA HEZITZAILEENTZAT

Udalekuen amaieran hezitzaile taldeak euskararen erabileraren inguruan egindakoa baloratzeko ondoren agertzen den galdetegia har daiteke eredu moduan.

Besteak beste, honako gai hauek landuko dira:

- Oinarrizko estrategiak
- Programazioan txertatu diren jarduerak
- Ahobizien dinamikak
- Sare sozialen erabilera eta erabileran eragiten duten faktoreak

\*Ez da beharrezkoa galdera guzti-guztiak erantzutea: gidoi moduan erabiltzea proposatzen da.

<b>Parte hartzaileen euskararen erabilera</b>	Hezitzaileekin	Hezitzaileekin euskaraz egin dute beti? Eskatu behar izan diegu guri euskaraz egiteko?
	Beraien artean	Euskaraz egiten dute beraien artean gutxienez egoera antolatuetan? Guztiek? Jarduerak programatzeak lagundu du euskara mantentzera edo indartzera begira? Euskaraz egiteko ohitura zutenek mantendu dute ohitura hori beraien artean eta besteekin? Euskaraz egiteko ohitura ez dutenek gero eta euskara gehiago erabili dute? Edo gutxienez hainbat tartetan euskara mantentzeko ahalegina egin dute?
		Ahobizi jarduerak lagundu dute euskara mantentzera edo indartzera begira? Eta hizkuntza-erabiltzea ezinbestekoa zen jarduerak proposatzeak (Sua, kortxo...)?

<b>Oinarrizko estrategiak</b>	Hezitzaile Berritsu moduan aritu gara?	Banakoekin elkarrizketa asko sortu ditugu? Eguneroko une ezberdinak erabili ditugu horretarako? Zailtasunak dituenari laguntzea lortzen dugu?
		Beraien arteko elkarrizketa askotan parte hartu dugu? Erraz lortzen dugu elkarrizketetan sartzea? Beraien artean euskaraz egiten dute?
		Ahalegina eskatu behar izan diegu? Lortu dugu tonu egokia erabiliz eskatzea? Ondo hartu dute? Ahalegindu dira? Errefortzu positiboak eman dizkiegu?

<b>Oinarrizko estrategien garapena</b>	Modu kontzientean aritu al gara hautatuko egoeretan?	Ibilaldietan, jantokian eta eskulanetan aurreikusi moduan jokatu dugu? Modu kontzientean? Txanda osoan zehar? Erraz egin dugu? Zailtasunik izan dugu? Zein dira sentrazioak? Zer bota dugu faltan?
		Egoera horietan modu kontzientean aritzeak izan al du eraginik beste tarte batzuetan? Horrela jokatu al dugu beste egoera batzuetan ere?

<b>Programazioan txertatu diren jarduerak</b>	Denbora librerako jarduerak	Sua-Marrazkiak-Story Cubes- Password...  Proposatu zaizkie? Erakargarriak dira? Erabili dituzte? Guztiek, batzuek? Denbora librean euskara mantentzeko lagungarriak dira?
	Txangoetarako jarduerak	Kortxoak dantzan  Erabili dituzue? Gustura hartu dituzte? Harremanak euskarara bideratzeko edo euskara mantentzeko lagungarriak dira?
	Gaubeletarako jarduerak	Argi beltza-...  Erabili dituzue? Gustura hartu dituzte? Lagungarriak dira?
	Gynkanak eta hizkuntza-probak	Torlojuak eta arandelak-Erne denak-Hau ez da nirea-Mc Gyverren gynkana-Hitz kateak-Emotikoneoi hitzak  Erabili dituzue? Egokiak dira? Gustura hartzen dituzte? Harremanak euskarara bideratzeko edo euskara mantentzeko lagungarriak dira?
	Hizkuntza-jolasak eta bestelakoak	Maite zaitut-3 lerroan-gozo garratz-postontzi hitzontzia-karaokea-laberintoa  Zeintzuk erabili dituzue? Gustura hartu dituzte? Harremanak euskarara bideratzeko edo euskara mantentzeko lagungarriak dira?

<b>Ahobizak</b>	Gustatu zaizkie jarduerak? Zeintzuk izan dira arrakastatsuak? Erraz kokatu dira dinamiketan? Guztiek parte hartu dute edo beti berdintsuak izan dira Ahobizak? Erraz animatu dira? Mantendu dituzte rolak edo oso zaila egin zaie? Aurreikusitako moduan egin da edo jarduerak moldatu behar izan dira? Lagungarriak dira euskararen erabilera indartzeko edo mantentzeko? Motibagarriak dira? Euskara kontzienteki mantentzen lagundu die? Zein da hezitzaileok jarduera hauei buruz duzuen sentsazioa?

<b>Balorazio orokorra</b>	<p>Udalekuen helburuak kontuan hartuta:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>· Zein da parte hartzaileen ezaugarriak kontuan hartuta aukeratu den helburu zehatza?</li> </ul> <p>Bete al dira helburuak? Zein dira zuen sentsazioak? Zein estrategia edo jarduera izan dira eraginkorrenak? Zer ez da egokia izan edo ez dugu lortu behar bezala egokitzerik? Hemen landutakoak balioko al luke beste jarduera batzuetarako?...</p>

